



Burlata



EDITORIALA

Hamar urte bete ditugu bai Burlatan eta bai Nafarroa osoan desberdinen arteko elkarlanetik, aniztasunetik eta indar abertzale eta aurrerakoien arteko batuketatik aldaketa bultzatzen eta gizarte justuago bat eraikitzen.

10-11. Orrialdeak.

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK

Osasun-krisia hasi zenetik, haurrak eta nerabeak izan dira biztanle gutxietsituenak. Mota guztietako mugak eta inolako zorrotasun zientifikorik gabeko neurriak pairatu dituzte, haien eskubideak urratuz.

2-3.. Orrialdeak.

LEGEGINTZALDIAREN BALORAZIOA

Navarra Suma Burlatako Udalera itzultzearekin politika egiteko modu zaharkituak itzuli dira. Legegintzaldiaren erdian gaudelarik ikusi da gardentasun falta eta adostasunetara iristeko gaitasunik eza dituztela ezaugarri.

8-9.. Orrialdeak.

Haur eta nerabeen behar eta eskubideekin ez da jolasten

Pandemiaren harira, eskolen, eskola-jantokien, haur-parkeen, kirol eta aisialdi guneen eta hezkuntza ez formaleko zentroen itxiera, haurren eskubideak eta beharrak kontuan hartu gabe egin da.

Osasun-krisia hasi zenetik, haurrak eta nerabeak izan dira biztanle gutxietsituenak. Era berean, mota guztietako mugak eta, zorroztasun zientifikorik gabe, azalpen zaileko neurriak pairatu dituzte. Ez da kontuan hartu, adibidez, mugimendua funtsezkoa dela haurren garapenerako, jateko edota lo egiteko premia bezainbeste. Nahiz eta Covid-19k ez dituen arriskuan jarri txikien bizitzak, modu askotara eragin die, eta gobernuek garatutako kudeaketak pobrezia eta desberdintasunak utzi ditu. Hainbat erakunde eta entitate

sozialek horien berri eman dute txosten askotan. Eskolen, eskola-jantokien, haur-parkeen, kirol eta aisialdi guneen eta hezkuntza ez formaleko zentroen itxiera, haurren eskubideak eta beharrak kontuan hartu gabe egin da, eta ez da frogatu osasun publikorako eraginkorra denik. Egiaztatzen ari garena da neurri horiek eragin handia izaten ari direla haur eta nerabeen osasun mentalean eta ongizate psikosozialean. Besteak beste, antsietatea, estresa eta lo egiteko arazoak eragin ditu. Baita ere jolasaren eta entretenimenduaren ordezkari bihurtu

diren pantailekiko gain esposizioa. Gainera, nerabeen artean, alkoholaren, kalamuaren edo tabakoaren kontsumoak gora egin duela diote txosten batzuek. Bestalde, ikusten dugu Nafarroako Gobernuaren azken neurriak gazteen kriminalizazioaren diskurtsoan oinarritzen direla, helduentzako aisialdi lokalen barrualdea irekitzea ahalbidetuz eta gazteen etxabeak irekitzea debekatuz.

Egoera horren aurrean, Burlatako Udala, egoera bidegabe horiek bere tresnekin arintzen saiatu beharrean,



Irudian, Joseba Gines EH Bilduko zinegotzia Burlatako Txipi-txapa udal ludotekaren parean.

haurren aurkako politiken buruan jarri da, Navarra Sumako gobernu taldearen neurriekin, haurren eta nerabeen eskubideak argi eta garbi urratzen baitituzte. Murrizketa horiek ez dituzte kontuan hartzen haur eta nerabeen bizi-beharrek ezta gizarte eta hezkuntza beharrak edo premia ludikoak ere. Horien artean, haur-parkeak ixtea dago, nahiz eta espazio irekietan egon eta araudiak neurri batean irekitzea baimentzen zuen. Udal ludotekak, urte erdiko itxieraren eta irekiera eskatzeko onartutako mozio

Ez da kontuan hartu, adibidez, mugimendua funtsezkoa dela haurren garapenerako.

batzen ondoren, gutxieneko jarduerak bati ekin zion berriro, plantillaren erdia murriztuta, astean bi egun bakarrik irekiz. Udalak hartutako erabakiaren ondorioz aste batzuk itxi egin behar izan ditu, hezkuntzako langileak ez ordezkatzeko erabakia hartu baitzuen udalak.

Murrizketa horien justifikazioa izan zen ludoteka ez zela errentagarria ekonomikoki, haurren eskubideak eurotan neurtuko balira bezala. Kezkagarriena da, gainera, langileen

eta ordutegien murrizketa horiengatik, alegia gobernu-taldearen kudeaketa negargarri honengatik, Burlatako ludoteka txikirik gabe geratzen ari dela, memorian jasotzen den bezala. Beren murrizketa eta debeku politikekin izutzen ari dira. Badirudi asmoa dutela, hainbat hamarkaden ondoren, zerbitzu publiko hori kentzea haurrei. Ulertezina da. Era berean, Gaztelekuan hezitzaile lanpostu bat kendu zuten, eta, ondorioz, zerbitzua emateko ordutegiak murriztu ziren. Navarra Sumak ere haurren kanpamenduak bertan behera utzi nahi izan zituen, sare sozialetan iragarri bezala. EH Bilduren eta oposizioko beste talde batzuen presioaren aurrean, aurrera egin zuten osasun egoerara egokituta.



Irudian, Burlatako Gaztetxeko eremua, Covid-19aren iritsieraz geroztik itxita dagoena.

Nahikoa ez balitz, gazteria ere eskuindarren politika baztertzailearen beste obsesioetako bat izaten ari da. Burlatako Gaztetxeak hainbat proposamen egin ditu kultur jarduerak egiteko, osasun neurriak zorrotz betetz. Hori txalotu egin beharko litzateke komunitate jarduerarik gabeko garai hauetan. Hala ere, Navarra Sumaren erantzuna (erantzun egin duenen, askotan ez baitu egin) ezezkkoa izan da, osasun egoeraren aitzakia baliatuta. Udalak era guztietako jarduerak antolatzen dituen bitartean, Gaztetxeko kideen proposamenei betoa jartzen diete, nahiz eta osasun neurri berberak edo zorrotzagoak proposatu. Herritarren aktibismoaren ahultasun une honetan, udal batek gazteen ekimen komunitarioak zaindu eta bultzatu beharko litzuke, beto sektarioak jarri beharrean. Gaztetxea

zoriondu behar da, halaber, Burlatako gazteriaren eragile nagusia izateagatik. Amaitzeko, eta oraingoan PSNren lehentasunezko bazkidearen lankidetzarekin, salatu behar da bi taldeen artean erabaki zutela Merkataritza Ganberari 9.975 euro ematea “gazteen ekintzailatza sustapenerako aholkularitza” kontratu baterako. Diru xahutua, Burlatako gazteen proiektu ekonomikoak finantzatzera joan zitekeena, beste batzuen interesak finantzatu beharrean.

EH Bilduk, batzordeetan zein osoko bilkuran, etengabe salatu ditu itxiera,

Gazteria ere, eskuinaren politika baztertzailearen obsesioetako bat izaten ari da.

murrizketa eta sektarismo hauek guztiak. Gure ustez, egungo krisia kudeatzeko modu ezin okerragoa da, ez baitira kontuan hartzen eta ez baitira errespetatzen txikien aisialdirako eta gizarteratzeko oinarritzko beharrak, zeinek muga handiak baitituzte ikastetxeetan eta eremu pribatuetan. Joan den legegintzaldian Burlata albiste izan zen

haurren eskubideen defentsan, jolastea debekatzeko seinaleak kendu baitzituen. Oraingoan aldiz, albiste izan gara haur parkeak aire zabalean ixten lehenak izan garelako. Burlatako haur eta nerabeek ez dute tratatu txar hori merezi ●



Irudian, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, Iruñeko udalaren zentsura salatzeko agerraldian.

Garai txarrak kulturarentzat

Bi urtetan Navarra Sumak Burlatako kultur programazioaren eskaintzaren kalitatea eta kantitatea galtzen utzi ditu, pandemiaren aitzakiarekin, herritarrentzat kultur jardura seguruak eskaini gabe.

Bi urte igaro dira jada Navarra Suma gure herrian gobernatzen hasi zenetik, eta denbora horren guztiaren errepaso labur bat eginez, esan dezakegu gobernu aldaketa bereziki kultur eskaintzan nabarmendu dela. Ez dezagun horren errua pandemiari egotzi; izan ere, 2019ko irailetik aurrera, aurreko taldeak prestatutako bestak igaro ondoren, nabaritzen hasi baitzen Burlatako programazioaren eskaintzak kalitatea eta kantitatea galtzen zituela. Udalaren arlo guztien, zein herriko kultur elkarte eta kolektiboen jarduerak barne hartzen zituzten bi hilean behingo programak jasotzeari utzi genion eta eduki gutxiko programa eskasak jasotzen hasi ginen, gehienetan, berandu. 2020ko martxoan etxean geratzera behartu gintuen birusa iritsi eta, halaber, Kultur Etxeko programazioa bertan behera geratu zen. Hala ere, kulturari dagokionez, okerre, “Normaltasun

berriarekin” iritsiko zen. Osasun-neurriek, protokoloek eta edukiera mugek inertziak aldatzera eta kultur gune seguruak bilatzera behartu gintuzten.

Horretarako lanean hasi beharra zegoen baina, horren ordez, Navarra Suma programazioa bertan behera uztea erabaki zuen. Ez bakarrik udakoa, baita ikastaro soziokulturalak eta Burlatako kultur taldeek udalaren lokaletan egiten dituzten entseguak ere. Den-dena bertan behera. Alternatibarik bilatu gabe. Kontuan hartu gabe beste udalerririk batzuk egokitzen jakin zutela eta herritarrentzat kultur jardura seguruak eskaintzen hasiak zirela. 2020ko maiatzean, Navarra Sumaren

utzikeriak kezkatuta, EH Bilduk karpabat erosteko proposamena egin zuen, Kultura Patronatuko Batzordearen aho bateko babesarekin. Honek aire zabaleko jardueren eskaintza ahalbideratu zuen, hurbileko udalerrietan bezalaxe.

Ez zen karparik erosi, ezta bestelako gune segururik egokitu ere. Ez zen aire zabaleko zinemarik edo programaziorik eskaini, betiere beldurraren argudiopean. Karpak balio zezakeen aire zabaleko jardura seguruak antolatzeke, gure kaleei bizia emateko eta, gainera, tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzeko. Koronabirusa hasieran zirudiena baino denbora gehiagorako etorri zela ikusita, behin eta berri, bi

**Navarrak
Sumak kultura
programazio
osoan bertan
behera utzi du.**



Irudian, Joana Eguillor EH Bilduko zinegotzia, kultur etxearen aurrean.

karpa erosteko gomendioa egin genuen. Baina ez dira iritsi. Espero dezagun, urtebeteko atzerapenarekin bada ere, udarako izango ditugula. Gaur egun, ikuskizunetarako ez bada, ia ez da Kultur Etxea irekitzen. Eta erabilera anitzeko aretoak hutsik ditu. Beste udalerrri batzuetan kultura segurua eskaintzen badute, Burlatan zergatik ez? Zalantzarik gabe, lan egiteko gogorik ez eta kudeaketa ezin okerragoa dutelako ●

NAVARRA SUMAK ERREGE MAGOEN HARRERARA JOATEAGATIK KOBRATU ZUEN

Covid-19ko kasuren bat emanez gero, kontaktuen jarraipena egiteko neurria zela argudiatuta egin zuen. EH Bilduk ordea gezurra zela frogatu zuen, sarreraren programak gonbidapenak doan eman eta harremanetarako datuak jasotzeko aukera ematen duelako. Navarra Sumak euro bat kobratu zuen Errege Magoak ikusi ahal izateko. Alkatearen eta Kultura zinegotziaren erabakiaren gaitzespena emanda ere, uko egin diote Burlatako Osko Bilkurak egindako eskaera betetzeari eta dirua itzultzeari.

NAVARRA SUMA PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN EMANALDIARI BETOA JARTZEN SAIATU ZEN

EH Bilduk proposatuta, Navarra Sumaren aurkako boto bakarrekin, pailazo ospetsuak Kultur Etxera ekartzea onartu zuen Patronatuko Batzordeak. Hala ere alkateak prentsari esan zion Batzarrak inposatu egin zuela. Demokratikoagoa omen da Navarra Sumaren betoa. Sarrerak 12 minututan agortu ziren.

NAVARRA SUMA-K TXUPINAZOA BALKOITIK BOTATZEKO IRIZPIDEA INPOSATU ZUEN

2019ko jaiak baino lehen, Patronatuko Batzordeak aho batez onartu zuen txupinazoa plazatik jaurtitzen jarraitzea. Alkateak, erabakia onartzen zuela esan arren, osoko bilkuran, Udaltzainburuaren txosten bat aurkeztu zuen, non, aipatzen ziren Guardia Zibilak eta Foruzaingoak balkoitik botatzeko gomendioak. EH Bilduk gomendio horiek ikusteko eskaria egin zuen. Bi urte ondoren, zain gaude.

Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko neurriak

Argi dago EH Bilduk beti egin duela merkataritza txikiaren eta Burlatako ostalaritzaren aldeko apustua. Hala ere, pandemiaren egoera korapilatsuak, agian, nabarmenago egin du gure babes. Itxialdian kanpaina bat abiarazi genuen sare sozialen bidez, herritarrek gure herrian erostera gonbidatuz. Halaber, behin eta berriz eskatu genuen azokaren irekitzea.

Gainera, ekarpenak egin genituen 2020ko merkataritza-bonuen deialdia hobetzeko, eta eskatu genuen partidaren zati bat gorde zedila kanpainarekin bat egin zuten ostalarientzat, ezin izan baitzuten deialdia baliatu, ixtera behartuta zeudelako.

2020ko maiatzean karpa handi bat erostea proposatu genuen, stock-azokak eta kultura zein gastronomia topaketak aire zabalean egin ahal izateko eta herriko ekonomia suspertzeko. Urtebete beranduago, karpa hori ez da iritsi. Jakina, EH Bilduk terrazak handitzea eta tasak murriztea babestu du ostalaritzari zuzenean laguntzeko. Ostalaritza-bonuen



deialdia ere babestu dugu, nahiz eta ez den kontuan hartu gure proposamena; terrazarik ez izateagatik hilabeteetan itxita egon diren establezimenduei edo lau mahai eskaseko terrazak dituztenei bonu gehiago ematea.

EH Bilduk beti egingo du tokiko eta

hurbileko kontsumoa sustatzearen alde, ez bakarrik pandemia garaiotan baizik eta Burlatak herri bizia izaten jarraitzeko estrategia gisa. Horregatik, merkataritza txikia sustatzeko kanpainak babesten ditugu, eta, horietan, tokiko merkataritzaren aldeko apustua egiten duten auzotarrak saritzen dira.

Izadi, gurasoekin, etxera!



Ekainaren 23an, Izadi Lizarraga Gutierrez eskubideak aldarrikatzeko adierazpen bat onartu zen Burlatako lau alderdi politikoen babesarekin: EH Bildu, Burlata Aldatuz, Podemos eta Geroa Bai taldeek sinatuta eta PSNren babesarekin. Izadi, Burlatako Maria Lizarraga eta Algortako Iñigo Gutierrez euskal presoen bi urteko alaba, kartzelan jaio eta bizi da. Orain bere gurasoekin batera Aranjuezeko kartzelan bizi da eta hiru urte betetzear, bere urtebetetze egunean, Izadi kalera irtengo da gurasoengandik 480km-tara urrunduz. Hori dela eta, Burlatako

alderdi politikoei “adingabearen egoerarekin kezkatuta daudela adierazi nahi dute, gurasoekin egoteko eskubidea bermatzeko eta, ahal den neurrian, gurasoekin bizi ahal izateko eskatzen dute, bere familia-inguruetik banandu gabe”. Adierazpenean ere jasotzen da “espetxeetako Instituzioei adingabearen eskubideak hobekien zainduko dituzten neurriak har ditzatela, gurasoekin eta haien familiarekin harremanetan egon ahal izateko”, eta, hala, “Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetara eraman ahal izatea” eskatzen da.

Udal tresnak lehenetsi eta indartzea beharrezkoa da **etxez-etxeko arreta zerbitzu duina bermatzeko**

Navarra Sumak Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuaren zati publikoa ahultzea eta kanpoko aldea indartzea erabaki du, horrela, Zerbitzu osoa pribatizatze bide arriskutsu bat abiatuz.

Burlata mendekotasun-egoeran dauden gero eta adineko gehiago dituen biztanleria da; horregatik, funtsezkoa da haien beharrei erantzun dieten gizarte-zerbitzu publikoak izatea. Hainbat hamarkadatan zehar, Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuaren zatirik handiena udaleko familia-langileengan oinarritzeko adostasuna egon da, eta zati txiki bat baino ez zen kanpora atera babes gisa. Hala ere, Navarra Sumak alde publikoa ahultzea eta kanpoaldea indartzea erabaki du, horrela, ELZren pribatizaziorako bide arriskutsu bat hasiz, hori baita egungo alkatesak beti nahi izan duena. Horren erakusgarri

da lehiaketa publiko bidez 170.000 euroko partida bat lizitatu dutela urtero zerbitzua azpikontratatzeko, lehen azpikontratatzan zenaren ia hirukoitza, lana udal-langileekin egiten baitzen. Hori posible izan da PSNk eta Navarra Sumak 2021eko aurrekontua onartu ostean. Horren ondorioz, etxez etxeko laguntza-zerbitzua ia erdiz kanporatuta dago, eta aurreko legealdian sistema publikoa indartzeko eman ziren aurrerapenetan atzera egin da.

Alkatetzaren aginduz, ordezkapenak, oporrak eta beste kontingentzia batzuk ez dira jada familia-langileen udal-

zerrendatik betetzen, azpikontratatuak enpresarekin baizik, eta lehenak erabateko babesgabetasunean uzten dira. Legealdi honetan ohikoa den bezala, hori guztia inolako gardentasunik gabe egin da, oposizioarekin eztabaidarik egin gabe eta gizarte-zerbitzuen atalean inolako azalpenik eman gabe.

EH Bildun uste dugu ELZk, prestazio bermatua denez, herritarren beharrei modu eraginkorrean erantzun behar diela, kalitatezko arretarekin eta itxaron-zerrendarik gabe, eta, horretarako, formularik onena udal-tresnak lehenestea eta indartzea dela ●



Irudian, familia langileak eta sindikatuetaordezkariak udaletxearen aurrean eginiko protestan. Iban Aguinaga, Diario de Noticias.



Irudian, Berta Arizkun EH Bilduko Burlatako bozeramailea, udaletxearen aurrean.

“Navarra Sumaren legegintzaldiaren lehen bi urteetan agerian geratu dena Burlatarako proiekturik ez dutela”

Dagoeneko bi urte igaro dira legegintzaldia hasi zenetik. Bi urte PSOE-PSNk Burlatako Udalean gobernu aurrerakoi eta ezkertiarra galarazi zuenetik. Bi urte PSNk Navarra Suma Alkatezara iristea utzi zuenetik, nahiz eta hamazazpi zinegotzitik bost bakarrik izan. Burlata askotarikoagoa, parte-hartzaileagoa, bizigarriagoa eta solidarioagoa lortzeko desberdinen arteko lankidetzaren oinarrian eraikitzen hasi ginen proiektua zapuztu egin zen, eta guretzat iraungita dagoen politika egiteko modu horiek itzuliko zirela ohartu ginen. Eta horrela izan da. Gardentasun falta eta adostasunetara iristeko gaitasunik eza itzuli egin dira.

Bistan denez, legealdiaren lehen erdian osasun-krisia izan da nagusi, eta hasieratik ulertu genuen ezin genuela gobernu-taldearekiko higidura-

elementu gisa erabili. Egoeraz jabetuta, zalantza lehen hilabete horietan modu eraikitzailean lan egin genuen EHBildun, COVID-19ri aurre egiteko proposamen sorta bat aurkeztuz. 2020ko aurrekontuak onartzeko aukera eman genuen, pandemiaren ondorioz sortutako aparteko gastuei aurre egin ahal izateko une horretara egokitu behar zirela jakinda. Baina lehen hilabeteen ondoren, ikusi genuen Navarra Sumak krisi hori erabiliko zuela parte-hartzea murrizteko eta zerbitzuak ixteko, eta agerian utzi zuen egungo gobernu-taldearen ekimenik eza eta utzikeria. Nahiz eta gure taldeak behin eta berriz eskatu duen zenbait zerbitzu

ematen jarraitu ahal izateko alternatibak bilatzeko, gobernu-taldeak bide erraza aukeratu du une oro.

Navarra Sumarekin batera iraungita dagoen politika egiteko modu hori itzuli da.

Gainera, gizarte-urruntzeak gure udal-lanaren dinamika aldatzera behartu gaitu, eta gaur arte uko egin diogu jarduera aurrez aurre berrezartzeari. Horrek, noski, izugarri zailtzen du gure zinegotzi-lana.

Baina pandemiaren haratago, Navarra Sumaren legegintzaldiaren lehen bi urteetan agerian geratu dena Burlatarako proiekturik ez dutela. Horrek, kudeatzeko irizpiderik ezarekin batera, mahai gainean egon beharko

luketen gai benetan heldu gabe jarraitzea eragiten du. Izan ere, oraindik ez dute aurre egiten hainbeste kezkatzen gaituen bideragarritasun ekonomikoaren arazo larriari, Erripagañaren etorkizunean lanean jarraitzeko ekimen faltaz ez hitz egiteagatik. Bi gai horiek funtsezkoak dira udalerrriaren etorkizunerako, eta 2019an utzi ziren puntu berean jarraitzen dute.

garrantzitsuei

Erantzukizun falta horren adibide argia da PSOE-PSNrekin 2021erako hitzartutako aurrekontua; izan ere, gastu arrunta gutxitzea eta diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka bilatzera joan beharrean, partida berriak sortu dituzte, gastuak handitzen soilik laguntzen dutenak, herritarren ongizatean eragin zuzenik izan gabe. Eta beste behin ere, presaka ibili den gauza bakarrarentzat, Navarra Suma izan da gure hizkuntza

Navarra Sumak osasun krisia erabili du parte-hartzea murrizteko eta zerbitzuak ixteko.

gutxiesten jarraitzeko erabakiak hartuz, batzuetan PSOE-PSNren konplizitatearekin, duten euskarafobia agerian uzten baitute.

Navarra Sumak oraindik ez du ulertu, alkatetza duen arren, Burlatan gobernatzeko behar den gehiengoa ez duela, eta adosteko ahalegina egin beharrean, aldebakartasunean tematzten da. Berriz ere erakusten dute elkarrekin lan egiteko borondaterik eza eta desberdinekin akordioak lortzeko gaitasunik eza. Guk, ordez, ezberdinen arteko lankidetzaren alde egiten jarraituko dugu, gure bizilagunen bizitzak hobetzeko helburuarekin ●

batu zaitez, bilkide egin.

¡Vamos allá!

ehbildu.eus





HAMAR URTE BAINO EZ BURLATA ERALDATZEN

Urte hauetan urrats garrantzitsuak eman dira aldaketaren bidean, eta erakutsi dugu posible dela beste modu batera gobernatzea.

Jada 10 urte igaro dira 2011ko maiatzaren 5etik. Gau hartan, Auzitegi Konstituzionalaren erabaki historiko batek jakinarazi zuen Auzitegi Gorenaren epaiaren baliogabetasuna eta parte-hartze politikorako eskubidea urratu zela ebatzi zuen. Horrela, Bildu, 2011ko udal eta foru hauteskundeetara aurkeztu zen. Azkenik, 254 hautagaitza horiek, Burlatakoa tartean, proiektu politiko berri horren hasiera izango ziren. Hedabideek presio handia egin arren, proiektu honetan sinetsi zuten eta proiektua bera garatu zuten pertsonen osatutako 254 hautagai-zerrenda. Urtebete geroago

EHBildu aurkeztu zen. Argi genuen etorkizuneko apustua zela, elkarlanetik, aniztasunetik eta indar abertzale eta aurrerakoien batuketatik etorriko zela gizarte justuago bat eraikitzeko aukera. Une hartan, gaur egun bizirik dirauten helburu garrantzitsuak dituen proiektu bati ekin genion: demokrazia sendotzea, subiranotasuna aldarrikatzea eta arlo politiko, ekonomiko eta sozialean eraldaketa sakona ahalbidetzea. Hamar urteotan oinarri sozialak berretsi duen moduan, herritarrekin batera gauzak aldatu daitezke. Urte hauetan urrats garrantzitsuak eman dira aldaketaren bidean, eta erakutsi dugu posible dela

akordioak lortzea eta erakundeak beste modu batera gobernatzea: zintzotasunetik eta herritarrekin batera.

Horrela, 2019an, EHBildu lehen udalindar gisa sendotu zen Hego Euskal Herrian, 1.280 zinegotzi baino gehiagorekin, EH Bildun lanean ari diren milaka pertsonari esker. Baina oraindik erronka asko ditugu, uste dugulako, umiltasunez baina anbizio osoz, posible dela beste balio etiko eta politiko batzuk dituen gizarte bat eraikitzea; herri-burujabetza oinarri duen gizarte justuagoa, berdinzaleagoa eta solidarioagoa. Zuek gabe, herria gabe, ez garelako ezer.

e baino ez
raldatzen.

ildu



NAFARROA

Koordinazio Talderako hautagaitza

Candidatura para el
Grupo de Coordinación



hamar urte
baino ez.

ehbildu



Arduradun Politikoa
Coordinadora Política

**Miren
Zabalaza Telleria**
Iruñea, 1981

**Politika Instituzionaleko
Arduraduna**
Responsable de
Política Institucional



**Unai
Lako Gohi**
Agóitz, 1987

**Udalgintza
Arduraduna**
Responsable de
Política Municipal



**Lola
Eslava Serrano**
Irunberri, 1993

**Antolakuntza
Arduraduna**
Responsable de
Organización



**Haritz
Romeo Gaideano**
Lizarrá, 1984

**Komunikazio
Arduraduna**
Responsable de
Comunicación



**Maddi
Lasa García**
Iruñea, 1994



Irudian, Burlatako kirol instalazioak.

Kirolak eta ariketa fisikoak osasunerako duten garrantziaz jabetuta, EH Bilduk osasun krisiaren hasieratik proposatu ditu alternatibak.

Kirol politika

Legealdiaren hasieratik, EH Bilduk, Zalduako kirol instalazioak hobetzeko beharra azpimarratu du. Guretzat kezkarria da azken bi urteetan eman den abonatu kopuruaren jaitsiera. Horregatik, etengabe egin ditugu zerbitzua hobetzeko eta kirol-instalazioen hobekuntzan inbertitzeko proposamenak, abonatu berriak erakartzeko eta gaur egun ditugunak fidelizatzeko. Honela, Kirol Patronatuko Batzordeak aho batez erabaki zuen ibilbide-orri bat. Honek jasotzen ditu, besteak beste, hondar zelaia kirol anitzeko eremu gisa egokitzea eta Kirol Patronatuko sarbidea kontrolatzeko gunearen zein bulegoen birkokatzea.

COVID-19ak baldintzatutako urte luze honetan, Navarra Sumak muturrera eramanez, EH Bilduk osasun-murrizketak. Ehunka bizilagun utzi ditu kirol-jarduerarik gabe eta, horregatik, askok aukera pribatuak bilatu behar izan dituzte. Kirolak eta ariketa fisikoak osasunerako duten garrantziaz eta konfinamenduak dakartzan ondorio psikologikoez jabetuta, EH Bilduk hasieratik proposatu zituen alternatibak; gobernu-taldeari eskatu zion egoera berrira egokitzeak, formulak bilatzeko aire zabaleko jarduerak antolatzeak eta beste batzuk streaming bidez antolatzeak teknologia berriak probestuz. Tamalez, Navarra Suma ez da gai izan bide hori jorratzeko, eta helduentzako aisialdiko

kirol-jarduerarik ez da egin azken 15 hilabeteotan. EH Bilduk eskatu du malgutu eta ahalbidetu dadila, inolako errekararik gabe, kuota eta tasen zatikatzea kirol eskoletarako eta helduentzako aisialdiko kirol-jardueretarako. Halaber, kirol eskoletan zein kirol jardueretan, hobaridun kuota ezartzea eskatu dugu diru sarreraren arabera, kirol jarduerak horiek herritar guztientzat izango direla bermatzeko. Pandemiaren ondorioz antolatu diren jarduerak gutxi horien prezioa garestitu egin da. EHBilduk eskatu du datorren ikasturterako berrir aplikatzea krisi sanitarioaren aurretik ezarritako zeuden prezioak, eta datorren ikasturterako eskariarekin bat datorren eskaintza bat diseinatzea, beharrezkoa bada, murrizketa sanitarioen aurrean alternatibak bilatuz. Era berean, kirol-jardueren eskaintza biltzen duen

informazio-liburuxkaren edizioari berrekiteko eskatu dugu gure etxeetako postontzietara berrir iristeko.

Duela urtebete baino gehiago, Kirol Patronatuak presaka onetsi zuen kirol-instalazioetan eraso sexistak saihesteko protokoloa. Protokolo horretan, besteak beste, udaleko langileentzako prestakuntza, puntu beltzen identifikazioa eta kartel espezifikoek jartzea jasotzen dira. EH Bilduk behin eta berriz salatu du, presaka onartu bada ere, oraindik ez dela martxan jarri. Berehala martxan jartzea eskatzen dugu. Kirol Patronatuaren helburuetako bat sail amateurrak sustatzea eta sortzea denez, federatu gabeko kirol amateurrak laguntzak eskatzeko aukera izatea proposatu du EHBilduk, bere klub bideragarritasuna bermatzen laguntzeko. ditzaketen garaipen juridikoekin ●



Irudian, Fernando Molina, EH Bilduko zinegotzia.

¿Sabías que...?

Ba al zenekien...?



... Duela zenbait astetik hona, Burlatak haurrentzako parke bat gutxiago duela? Eta beste batzuk oso egoera kaskarrean daude. Hala ere, gobernu-taldeak ez du egoera iraultzeko neurririk planteatu. Navarra Suma trebeagoa da parkeak ixten, irekitzen eta zaintzen baino.



Kiroldegia

Elizgibela kiroldegia hobetzeko eta handitzeko lanak laster amaituko dira. Aurreko legegintzaldiko gobernu-taldearen apustua izan zen, kirol-espazioak eta irisgarritasuna hobetzen lagunduko duena. Zalantzarik gabe, berri ona guztiontzat.



Errolda eskubidea

Erroldatzeak funtsezkoak dira zerbitzu publikoak eta oinarritzko eskubideak jasotzeko. Hala ere, gure herrian bizi arren, badira Burlatan erroldatu ezin diren pertsonak. Hala ere, gobernu taldeak ez du ezer egiten eta gero eta salaketa gehiago dago. Navarra Sumari eskatu diogu gai hau serio hartzeko eta herritar guztiei eskubide guztiak bermatzeko.



Hezkuntza

Navarra Sumak Burlatako ikastetxe publikoen promozio kanpainari ere betoa jartzea erabaki du. Azken hamarkadetan, Udal-agintea osatu duten gobernu talde guztiek babestu dute kanpaina hori, kolore batekoak zein bestekoak izan. Beste behin, eskuinaren sektarismoaren eta publikoarekiko mespretxuaren erakustaldia.

BAKARTXO RUIZ

EH Bilduko Foru Parlamentaria



“Ez dago inolako irizpide juridiko edo soziolinguistikorik Nafarroan euskara ez baloratzeko eta bai atzerriko hizkuntzak. Zonifikazioa gainditzen ez den bitartean, ez da hizkuntz-eskubiderik bermatuko Nafarroan”



Aurrekontuak

Behin eta berriz eskatu dugun arren, eta aurrekontuan jasota egon arren, Navarra Sumak ez du aurrekontu partehartzaileen deialdirik egin bi urteotan. Aurreko legegintzaldian abian jarri zen partaidetza-prozesu horri esker, Burlatako lehen haur-parke estalia eraiki zen; Adinekoen Zentroan informatikagela bat egin zen; eta, 2019ko azken deialdiari esker, Adinekoen Zentroan espazioa eta irisgarritasuna hobetzen dituen obra garrantzitsu bat egin zen.



Osasuna

Osasun krisia hasi zenetik, EH Bilduk, behin baino gehiagotan eskatu zuen Osasun Kontseiluaren deialdia, Burlatako osasun egoera aztertzeke eta osasun komunitarioari inguruko neurriak bultzatzeko. Presio horien aurrean, Kontseilua irailean deitu zen, baina gobernu-taldeak ez dio inolako jarraipenik egin. Nafarroako lehen mailako arretaren kolapsoa berretsi zen Kontseiluan. EH Bilduk, Lehen Mailako Arretarako, giza baliabide eta baliabide material nahikoak eskatzen ditu, herritarren beharrak asetzeko arreta integrala eman dadin.



Euskara

Navarra Suma Burlatako Bizikidetza Azterlanaren Ekintza Plana sistematikoki urratzen ari dela salatu dugu, non euskararen eta kulturartekotasunaren aldeko neurriak bultzatzeko beharra adierazten den. Hala, D eredua sustatzeko hizkuntza ezberdinetan egiten den liburuxkari betoa jarri zitzaion, inolako azalpenik eman gabe. Euskarafobia besterik gabe. Euskara inklusio sozialeko faktore bat da migratzaileentzat, aukerak sortzen dituen eta kulturen arteko bizikidetza errazten duena. Horretarako, udal gobernuak aukera-berdintasunean ikastea erraztu behar die ikasle guztiei, jatorria edozein dela ere.